

Zuregan sinesten dut, adiskide (otoitza)¹

Biok elkartzean zure begiek pozez dir-dir egiten badute,
zuregan sinesten dut, adiskide.

Nire malkoak zeure egin eta
negarrez ari direnekin negar egiten baduzu,
zuregan sinesten dut, adiskide.

Zure eskua emateko zabalik bada
eta eskuzabaltasunez laguntzeko borondatea baduzu,
zuregan sinesten dut, adiskide.

Zure hitzak zintzoak badira
eta bihotzeko sentimenduen adierazpen badira,
zuregan sinesten dut, adiskide.

Nire ahuldadeak ulertu eta
erasoen aurrean babesten banauzu,
zuregan sinesten dut, adiskide.

Maitagarritasunez zuzentzeko adorea baduzu,
zuregan sinesten dut, adiskide.

Huts egiten dudanean
barkatzeko pazientzia baduzu,
zuregan sinesten dut, adiskide.

Nire alde otoitz egin
eta niretzat eredugarri bazara,
zuregan sinesten dut, adiskide.

¹ *Rezando voy* web orrialdetik hartutako "Oración de la amistad" otoitza:
<https://rezandovoy.org/reproductor/especial/inf-amistad>